

... bizitza nahikoa ez delako

Xabier Egañaren ibilbide artistikoa eta bizitza

Juan Ayesta

Xabier Egaña Albizu Areetan jaio zen (Bizkaia) 1943an. Espainiako Gerra Zibila amaitu berrian eta Bigarren Mundu Gerra gatazka beliko izugarriaren ateetan.

Bost anaia-arrebatatik zaharrena da, familia fededun, kristau eta langile batean, zeinetan frankismo irabazlearen aurrean porrotaren kontzientzia argia nabaritzen zen. Bere familia-sustraiak, sentiberatasun erlijioso, gizatiar, sozial eta politikoan oinarrituak izan ziren bere ibilbide artistikoan, era batera edo bestera, islatu denaren hazia. Haurtzaroko garai horretatik, artistak berak oroitzen du: “umetatik bizi izan nuen Nerbioi ibaiaren eta Bizkaiko Labe Garaien paisaia, gure zeruak kez eta lehortzera zabaldutako gure izarak kedarrez betetzen. Paisaia horretan hasi nintzen, ederra bere gogortasunean, bere gris zikinetan, labe garaien egitura erraldoien aurrean, non itsasontziek gora eta behera egiten zuten euren turuta zakarrak jota agurtuz. Paisaia hori oraindik ere agertzen da, era batera edo bestera, nire gaur egungo lan askotan.”⁽¹⁾

Sei urte zuenetik bederatzi izan arte Areetako Eskola Publikoan ikasi zuen. Hamar urtetik aurrera batxilergo ikasketei ekin zien, beka bat jasota eta eguneko erregimenean, Opus Deikoa den Gaztelueta ikastetxean. “Gaztelueta ikastetxetik oroitzapen onak ditu. Lucio Muñoz, eta Areatako Mesedeetako elizaren murala pintatu zuen Ramil-en ikaskidea zen Alzuet bezalako irakasleek garairako irakaskuntza librea eta aurrerakoia ematen zuten arlo artistikoan. Gutxi kopiatzen zen eta ekimen librea uzten zitzaion ikasleari zentzu guztietan. Pintoreak garai puntuala eta irekia zela oroitzen du.”⁽²⁾

Hamalau urte zituela, ohean egon behar izan zuen, atsedena hartzen, gaixotasun erreumatikoa zela eta. Epealdi luzea izan zen eta irakurketari, komikiei eta marrazteari ekin zien. Garai hartan, beste pintore askoren kasuan bezala, txikitatik bazuen marrazkigile onaren ospea.

1960an, hamazazpi urte zituela, bide erlijiosoa hartzea erabaki zuen San Frantziskoren bizipenetik. Latina ikasteko Foruan ikastaro bat egin ostean, Zarautzen jarraitu zuen bere prestakuntza frantziskotarra.

1961ean, Zarautzen egin zuen egonaldi hartan, erabiltzen ez ziren paperen bila, horietan marrazteko, farmazia-katalogo bat aurkitu zuen eta marrazkiz bete zituen hutsik zeuden espazioak. Arkatzez egindako marrazkiak dira, trinkoak, trazu koipetsukoak, non pertsonen eta eraikinen figurak errepresentatzen diren, arintasunez eta adierazpen askatasunez, eta bere ibilbidean behin eta berriz agertuko diren elementuak izango dira.

Estimuluak, aurkikuntzak eta eraginak (1962-1969)

1962an Olitera iritsi zen, hiru urtez Filosofia ikasketak egiteko. Horrek mugari bat jarri zuen etorkizunean artean izango zuen ibilbidean, han aurkitu baitzuen Xabier M^a Alvarez de Eulate pintore frantziskotarra, eta horrek farmazia-katalogoko marrazkiak ikusi ostean, han artista potentziala zegoela susmatu zuen, horregatik animatu zuen eta ordura arte Egañak ikusita ez zituen pintore esanguratsuen marrazkidun liburuak utzi zizkion.

Deskubrimendu itzela hogeitaka urteko gazte batentzat, estimulu bisualen egarria zuena, irudi mundu berria ireki zitzaion eta adierazpen plastikoari heltzeko beste modu batzuk. Eulateren hurbiltasun artistikoa eta gizatiarra giltzarria izan zen bere artista-ibilbideko garai hartan, marrazten eta pintatzen jarraitzera animatu baitzuen. Eulateren eskutik sormen-indarra aurkitu zuen eta Picassoren lanaren adierazpen boterea eta botere berritzailea; sortzeko askatasunaren eta formen eztanda mentala eta emozionala, marraztea, deformatzea, desagitea eta berregitea. Garai hartatik, Eulatek utzi zizkion Picassoren lanari buruzko liburu bi ditu gordeta, zuri-beltzean egindako erreproduzioekin.

1991ko urrian Iruñean egin zuen erakusketa zela-eta, artistak gogoratu zuen: “1962ko nire hasiera pinturan Javier Álvarez de Eulateren abegia, lagunkidetasuna eta estimuluaren eskutik izan zen, Oliten. Berarekin deskubritu nituen artearen oinarritzko ardatzak: benetakotasuna, lana,

sentiberatasuna eta informazioa. Berarengandik jaso nituen artearen korrante nagusiei buruzko balorazioa: Picasso, Miró, Lucio Muñoz eta Kokoschka deskubritu nituen, baita materia, kolorea, marrazkia eta konposizioa ere.”

Urte haietan egin zuen topo, nahiko ustekabea, Lucio Muñoz-en estiloarekin ere. Oliten, ikasle kubatar bat zegoen, Esteban, zur-landuaren zalea. Halako batean, Egañak aprobetxagarriak iritzi zien zur-landu batzuk botatzekotan zegoen Esteban, eta Egañak eskatu egin zizkion. Kolorez argiegiak zirela iritzi zion Egañak eta, pinturarik ez zuenez, sandaliei emateko erabiltzen zuen betuna erabili zuen zura iluntzeko. Eulatek ikusi zituenean harrিতuta esan zion: “Baina hau Lucio Muñoz da-eta!”, garai horretan Arantzazuko basilikako absidea bukatu berri zuen artista.”⁽³⁾

Une horretara arte Egañak ez zuen Lucio Muñoz-en lana ezagutzen, baina Eulatek Lucio Muñoz-en lanen erreprodukzioen liburu bat ere utzi zion, zeinetan, zuraren erabileraren bidez, adierazpen plastikoaren mundu oso bat deskubritu zuen. Orduan hasi zen interes handiko garai bat bere zeregin plastikoan, aukera berriak ikertu zituen kontratxapatu oholak erabiliz, apurketak edo zuloak eginez, pintatuz eta higatuz. Materiaren kualitate plastiko intrintsekoen deskubrimendua izan zen, testurak, betak, ñabardurak ... eta aprobetxatu ere bikain aprobetxatu zuen.

Oliten egin zuen hiru urteko egonaldian, hainbat lan egin zituen zur gainean, batzuk abstraktuak eta beste batzuk figuratiboak gai frantziskotarretan, komentuko bertako hainbat gune apaintzeko: atezaindegia, jantokia, kapera ... Materiazko adierazpenez betetako konposizioak dira, zeintzuetan Lucio Muñoz-en lanaren eragina eta pisua oso markatuak diren teknikari dagokionez, batez ere, adierazpen abstraktuetan. Lan figuratiboetan, Oteizaren estatuagintza figuratiboaren eragina ere nabaritzen da, batez ere aurpegien formaren trataeran.

Oliten zegoela, 1964an, Frantziskotarrak Gasteizen zeudela 750. urteurrena zela eta⁽⁴⁾, Arte erlijiosoaren erakusketa bat antolatu zen, eta bertan hiru frantziskotarren lanak erakutsi ziren elkarrekin, Eulate, Iriondo eta Egaña. Xabier Egañak *Gurutze-bide* bat erakutsi zuen lehenengo erakusketa publikoa izan zen, klabe abstraktu-figuratiboan, lau panelez osatua, zurezko ohol baten gainean egina, landua eta polikromatua, Lucio Muñoz-en eragin estilistiko argi horrekin. Gasteizko erakusketa amaituta, Arantzazura eraman zituzten lanak. Orduan mirestu ahal izan zuen lehenengo aldiz Egañak *in situ* Lucio Muñoz-en abside monumentalak, amaitu zuela urte bi igaro ondoren.

1965ean, filosofia ikasketen zikloa Oliten amitu ondoren, Egañak bere prestakuntza frantziskotarra jarraitu zuen Arantzazun, eta han egin zituen Teologia lau urteak. Garai hartan, pertsona batzuek Arte ederrak ikas zitzala iradoki zioten, baina Oteizak berak gogogabetu zuen, eta bere pertsonalitate propioa lan zezala gomendatu zion. Egaña eta Oteizaren arteko harremana 1965aren inguruan eratu zen. Egañak artikulu bat idatzi zuen *Jakin* aldizkarian, eta bertan Oteizaren lanaren alderdi erlijioso baina ez kristauaren gaineko hausnarketa egin zuen; Oteizari Egañaren ikuspuntua gustatu zitzaion eta hortik aurrera harreman emankorra hasi zen, adiskidetasun luzekoa, eta hausnarketa eta bizitza une asko partekatu zituzten.

Arantzazun zegoela, pintoreak ustekabea egin zuen topo *Paris Match* argitalpen frantsesaren ale batekin. Bertan erreportaje bat zegoen, nahiko osatua eta koloretan, Chagall-ek Parisko Operaren sabaian egindako lan izugarriari buruz, 1964an egina⁽⁵⁾. Irudi haiek, indar poetikoz beteak, figurak askatasunez flotatzen oihaletik/sabaitik, indar apartako hori, gorri, berde eta urdin haiekin, Egañaren erretina jo zuten zalantza barik, bere pertzepzio plastiko indarrez astinduz, eta bere konposizioak egituratzeko orduan sinboloen balioa deskubritzera eraman zuten, eta “kolorea beste era batera erabiltzera” ere bai.

Une hartatik aurrera, Egañak esperimendazio plastiko epealdi bati ekin zion, zeinetan nahasten joan zen Picassoren askatasun hedakorra formen errepresentazioan, Chagall-en konposizio poetika koloretsuarekin, sintesi oso pertsonalean, jestu azkar eta errazekoa, estilo berezia zehaztuko duena eta aurrerantzean bere ibilbide artistiko emankorra markatuko duena.

1968ko azaroaren 1ean, Oteiza Arantzazura igo zen, hamalau urtez etenda egon zen basilikako fatxadari lanean jarraitu eta amaitzeko. Egaña, kide gutxi batzuekin, zaletasun artistikoa zuten ikasleekin, sarri joaten zen Oteizak Arantzazun ezarri zuen tailerrera. Egañak gogoratzen duenez: “bere tailerrera egiten genituen bisitetan, Oteizak buztinaz lan egitea gomendatzen zigun eta aldean beti libreta bat eramatera ‘behartzen’ gintuen, ideiak apuntatzeko eta marrazkiak egiteko; modelatuz eta igeltsuan ere trebatzen ginen.” Jakina, Oteizarekin egunero egotea adre handiena izan zen Xabier Egañarentzat garai hartan. Ikasketa eta sormenaren irekitze urteak izan ziren.

1968an bere lehenengo murala pintatu zuen (25m²) San Diego kaperan, komentu barruko toki txikia, hildako fraideen beila egiteko. Egañak horma nagusia apaindu zuen, basilikaren lanen ondorioz hormigoiz hutsa zen-eta. Heriotzaren figura alegorikoak egin zituen, Oteizari asko gustatu zitzaizkion zirriborro batzuetatik abiatuta Oteiza.⁽⁶⁾

1969an, ikasketa teologikoen bere etapa amaitu zuen eta horrekin bere prestakuntza frantziskotarra, eta apaiz egin zen. Udazkenean, erretiro espiritualerako eta lan komunitarioko egonaldi laburra egin zuen Obanoseko basilika batean (Nafarroa), eta han mural bat pintatzen hasi zen: "gai erlijiosoak ziren, figura altuak, Oteizaren eragin estilistikoa zutenak." Egun batean, mahats-bilketan lanean, lunbalgiak eman zion eta, medikuaren laguntza behar zuenez, frantziskotarren Donostiako komentura joan zen errekueratzera. Han, gaixoaldian, kide batek liburu-maketa bat lortu zion, larruzko azalak zituen eta orri zuria. Egañak dibujoak egiteko erabili zuen. Liburu hori hurrengo hamar urteetan joango da berarekin, bidaide izango du. Bertan jasoko ditu marrazkiak, zirriborroak, oharrak hartuko ditu, e.a. Liburu sorta luzeko lehenengoa (01 liburua) izango da- gaur egun hainbat dozena daude- eta bertan marrazkiak egiten eta hausnarketak idazten jarraitzen du.

Estilo berezi hori finkatzea (1970-1979)

Sendatu ostean, 1970ean, Santanderrera joan zen hilabete batzuetan, eta han, mural bat pintatu zuen, gai frantziskotarrez osatua, bizi zen komentuko jantokian. 1970eko uztailan Valladolidera bidali zuten eta urtebete inguru eman zuen bertan, eta 1972ko ekainean erakusketa bat egin zuen Jon Mayora eskultorearekin batera, Arrate-Eibarreko Aisialdiko Kultura Elkartearen. Taillaketak, zurezko eta igeltsuzko eskulturak, zur gainean egindako pinturak eta marrazkiak ... erakutsi zituen: "lerro formalistako marrazki batzuetan, maisutasunez iradoki zuen luma-muturrez egindako marrazkietan duen domeinu handia" ... "lan osoan ikur existentzialista ugari daude."⁽⁷⁾

Valladolidetik Arantzazuko ikastetxera bidali zuten, eta urte pare bat eman zituen han. Garai hartakoa da lan oso aurrerakoa, freskoa eta biribila era harrigarrian, zeinetan trapezuak eta arropa hondakinak sartu zituen, arrosa eta fuchsia koloreko fondo baten gainean. 80ko hamarkadaren hasieran egingo zituen beste lan batzuen aitzindaria izango da. Kuadro-mihizadura bat da, berrerabilitako taula baten gainean pintatua, kontzeptuala eta abstraktua, honela sinatua: *Autoerretatua Eulateri eskerrak emateko/Autorretrato como agradecimiento a Eulate* (1973koa ziur aski). Lan berezia da, aitzindaria, geroko estiloa aurreratu zuena.

1973ko urrian Madrilera bidali zuten, eta han bizi zen 1975eko abendura arte. Han bizi izan zituen frankismoaren azken urteak, garai oso asaldatua arlo politikoan nahiz sozialean, ziurgabetasun handikoa eta gertakariz betea, bere bizipen pertsonaletan eta artistikoan oso aberasgarria izan zena.

1975eko irailean Francok pertsona zibilen azken bost fusilamenduak sinatu zituen, horien artean, Txiki eta Otaegi. Gertakari horrek hunkituta Egañak marrazki kopuru esanguratsua eta zenbait lan ekoiztu zituen horren inguruan. Horrela, Goyari begiratu zion, eta marrazki eta zirriborro ugari egin zituen, *1808ko maiatzeko fusilamenduen* bigarren irakurketa eginez, eta amaitzeko *Baita gero ere* izeneko bere koadroa egin zuen. Rembrant-en *Le Boeuf écorché* lanari ere erreparatu zion, eta Egañaren begiradan fusilamenduekin eta gurutziltzaketarekin zerikusia du; horren gaineko interpretazio batzuk egin zituen olioan eta akrilikoan.

Asaldura eta gaien eta adierazpenaren esploratze testuinguru horretan, *Txiki eta Otaegiri buruzko bionboa* da nabarmenena. Lan lasgarria, oso adierazkorra, pintzelada azkarrekoa eta biribila, egunkari eta aldizkari zatien collage oinarri baten gainean egina, non pintorearen arintasuna eta maisutasuna ikusten den figuren trataeran, konposizioan, testuretan eta lausotzeetan, koloreak, azalaren esgrafiatura eta abar aplikatuz. Gero, pieza biko eskultura egin zuen Egañak, hormigoizkoa, hilarria balitz bezala, Otaegiren hilobian dagoena, Nuarbeko hilerrian, Azpeitian.

1975. urtearen amaieran, Cándido Zubizarretaren deia jaso zuen, Arantzazuko komentuko liburutegia zenarena, eta Arantzazuko basilikako Andre Mariaren Ganberatxoko hormak muralaz apaintzea proposatu zion. Leku zirkularra, absidearen atzean, Andre Mariaren irudia hurbiletik ikusteko prestatua. Zalantza barik, Txiki eta Otaegiren fusilamenduak izan berri zirenez, horiek injustizia eta sufrimenduaren gaineko hausnarketa sakona eragin zion, enkarguari ekiteko orduan.

Madriren zegoela, Oteizarekin sarri zuen harreman horietako batean, Madril uztera eta Iruñera joatera animatu zuen Oteizak, bera han bizi baitzen garai hartan. Ikasteko eta Oteizarekin egoteko aukera

zela ikusi zuen Egañak, bere nagusiekin kontsultatu ostean, Egañak Madril utzi zuen eta 1976 eta 1977 artean Iruñean bizi izan zen, parrokia frantziskotarrean, baina beti Oteizarengandik hurbil. Han hainbat lan egin zituen, pinturan eta zur gainean, parrokia apaintzeko eta epealdi horretan, Oteizak berak hala esanda, zink plantxa gaineko grabatuaren teknika ikasten aritu zen, Eslava grabatzaile nafar ospetsua maisu zuela.⁽⁸⁾

Grabatueta, garai hartan akuilatzen zuten gaietan trebatu zen: fusilamenduen bigarren irakurketa (Goya), eroriak, sufrimendua eta bidegabekeria, hiria ere, pertsona-taldeak, Arantzazuko Andre Maria, eta abar, bere koadernoetan agertzen diren marrazkietatik hurbil dagoen estiloaz, non zizelak marraztu eta atzaparkatu egiten duen plantxa, keinu soil eta zuhurraz. Egileak berak dioenez, Arantzazuko Andre Mariaren Ganberatxoko geroko pintura muralen oinarri kontzeptualean eta eraikitzailean daude grabatu horiek.

1976an, Donostiako Estudio galerian egin zuen erakusketa. Erakusketaren liburuxkan egilearen beraren testua agertu zen: "Nik uste dut nire pinturak, askotan, nire bizipenak apuntatzeko egunerokoa direla, inguratzen nauten gertaera, egoera eta objektuen aurreko bizipenak."

1977ko udaberrian Puerto Ricora joan zen, San Juan de Puerto Rico hiriburuko Las Lomas auzoko Jaunaren Berpizkundeko eliza muralez apaintzeko. Hilabete bi izan ziren, eta Egañak eliza bereziarekin egin zuen topo, bere kontzeptio ekologikoarengatik, izaera tropikalekoa, sabairik gabeko gune batzuk zituen eta alboetan hormigoizko hormak, arkitekto kubatar batzuek diseinatu. Han, absidearen pintura muralak egin zituen, hormigoizko hormen esgrafiatua eta apainketa, lan eta festa eszena popularrekin, baita altzari liturgikoak ere (aldarea, anboia, jarlekua).

Puerto Ricon izan zen bitartean, astebeteko bidaia egin zuen Mexiko DFra. Han, kultura aurre-hispanikoen zenbait ezaugarri ezagutzeko aukera izan zuen, Museo Arkeologikoa eta mural egile mexikar handien lanak bisitatu, Ribera, Siqueiros eta Tamayo, kultura herrikoian oso sustraituak. Teotihuacán Kolon aurreko gune arkeologikoa ere bisitatu zuen.

1977ko udazkenean Arantzazura itzuli zen, bertako ikastetxean heziketa artistikoko irakasle izateko. Han, irakasle-talde dinamikoa eta irekia aurkitu zuen, eta bakoitzak bere erara eragin zioten pertsona birekin aritu zen lanean: Juan Arriola eta Bitoriano Gandiaga poeta.

Juan Arriolak heziketa artistikoko klaseak ematen zituen eta beragandik ikasi zuen materialak (*ready made*) elementu estetiko gisa erabiltzen, maneiatzen eta arte-lanetan txertatzen. Arriola jadanik bazen sortzaile plastikoa, oso aktiboa, aurkitzen zituen mota guztietako materialekin esperimendatzen zuena, eta bazeukan eskultura lan objektual kopuru itzela. Lan horiek ikastetxeko korridoreetan eta beste gune batzuetan kokatzen zituen. Zala zen bere lanen batekin topo ez egitea. Hilabete gutxi eman zituzten elkarrekin, Arriola Madrilera joan zelako Arte Ederretan hasteko eta Egaña bere ordezkari izateko iritsi zen Arantzazuko ikastetxera.

Beste alde batetik, Bitoriano Gandiaga zegoen, naturarekiko berezko sentsibilitate izugarria zuen eta eskulan-klaseak ematen zituen, eta lan hori bere literatura-ekoizpenarekin uztartzen zuen. Gandiagarekin, Egañak -bera 'kaletarra' zen- ama naturaren aberastasun eta sakontasun sinbolikoa ezagutu zuen: zaldiak zutik Aloña mendian, mendietako kobazulo eta bide malkartsuak, troketako koloreen mundu isila ... Obserbaziorako eta solaserako ibilaldi luzeak izan ziren.

1977. urtearen amaieran, talde-erakusketa aurkeztu zen Donostiako San Telmo museoan, Arantzazuko Santutegiarekin lotura zuten lau artista frantziskotarren lanarekin: Alvarez de Eulate, Iriondo, Arriola eta Egaña. Prentsan agertu zen: "gizon talde honek pintura eta eskultura lan oso interesgarriak egin ditu, garaiko teknika abangoardiakoena gogorarazten diguna"⁽⁹⁾. Erakusketa errepikatu egin zen 1978ko abuztuan, Zarautzko ikastetxe Antonianoan, frantziskotarrek herria hartan ehun urte zeramatzatela ospatzeko.

Arantzazuko Andre Mariaren Ganberatxoko muralak (1978)

Andre Mariaren Ganberatxoa forma erdizirkularreko gunea da, presbiterioaren atzean kokatua, eta publikoak ikusten ez dituen eskailera estu batzuetatik du sarbidea. Pasabidea da, eta Andre Mariaren irudia hurbiletik ikustea ahalbidetzen du. Ganberatxoko ibilbide horretan, irudiak erdiko gunea betetzen du, eta alboetan hiru horma uzten ditu, agerian utzitako hormigoizko kontrahormek banandutakoak. Orotara zortzi horma-zati dira 3,4 x 4,25 m-ko altuerakoak.

Aipagarria da herrialdearen testuinguru sozio-politiko Xabier Egañak eskaera jaso zuenean 1975. urtearen amaieran. Erregimen frankista azkenetan zegoen eta Franco diktadoreak bere azken bost heriotza-zigorak sinatuak zituen, zeintzuetan fusilatuak izan ziren Txiki eta Otaegi. Egañak, testuinguru latz hartan, kutsu "erlijioso" eman behar zion bost pertsonaren funtsik gabeko heriotzari, Ganberatxoko hormen enkargua kontestualizatzeko. Joben liburuan ere pentsatu zuen egileak, gai nagusia minaren absurdua baitu. Gandiaga Topagunea eraikinaren egilea den eta Arantzazu sakon ezagutzen duen Miguel Alonso del Val arkitektoak dioenez: "Gizaki minduaren adierazpenak salaketa kutsua du hemen."⁽¹⁰⁾

1976 eta 1978. urteen artean, Egañak esplorazio-marrakiz eta zirriborro kopuru handia egin zuen ikonografia tematikoari eta ikerketa plastikoari buruz, errepresentatuaren konposiziorako eta trataera formalerako. Hasiera batean, hormen azaleratik zebiltzan forma dinamiko abstraktuekin egin zuen lan, eta batez ere Andre mariaren albo bietan kokatutako seiretan zentratu zen. Beraz, Ganberatxorako lehenengo planteamendua konposizio abstraktua izan zen, zura erabiliz. Zirriborroa Oteizarekin komentatu zuenean, zura erabiliz egindako arte-lanari ez ekiteko gomendatu zion, Lucio Muñoz-en absidearen indar plastiko guztia izango zuelako aurrez aurre, eta Ganberatxoaren hormetarako pintura planoan lantzen animatu zuen.

Azkenean gauzatu zen ideien hasierako hurbilketa haien maketa bi gordetzen dira. Lehenengo maketa, sei horma-zati nagusia da (pieza bitan), erabat abstraktuak, non konposizio dinamikoa ikusten den eta zurezko erliebe elementuak, koloretako orban xumeez osatua, eta azalera asko zuriz utzita.

Bigarren maketak, igeltsuzko panelen gainean eginak, oraindik ere aurrekoen antzeko bolumenak ditu, baina oraingo honetan polikromatuak dira, figurazioa gainerako horma-zatietan integratuz, Egañak propio duen errepresentazio-estilo horrekin. Hirugarren bertsio bat ere izan zen, jadanik aurreko bolumenik gabe, pintura baino ez, baina bigarren maketaren lerro estetiko eta sinboliko berari jarriki, eta hori izan zen Madrilera berak pertsonalki eraman zuena, Saenz de Oiza arkitektoaren oniritzia lortzeko.

Hiru hilabetez, 1978an, Egañak ehun eta hamabost metro koadroak burutu zituen. Goizetan baino ez zuen pintatzen, arratsaldeetan oraindik ere ikastetxean eskolak ematen baitzituen. Pinturetan erabilitako materiala latexa pigmentuekin izan zen, eta olio ukituak. Emaizari dagokionez, Edorta Kortadik dio⁽¹¹⁾: "ikonografia humano-erlijioso da, estilo eraikitzaile-espresionistan egina. Marrakia eta grafia indartsuak eta boteretsuak dira multzoan. Picasso, Arteta, Oteiza, Guayasmin eta Chagall daude pintura horren sustraian. Sarrerako grisak, urdinak eta okreak itxaropenez betetako kolore epel eta argitsuetara irekitzen dira."

Zortzi horma-zatien gai globala Gizateriaren Historia da. Ez da erraza ulertzen artistak helarazi nahi izan duen mezua, azalpen labur bat eman barik. "Egañaren pinturak minaren absurduari buruzko hausnarketa da eta Kristo bezala, mundua aldatzen ahalegintzen direnen porrotari buruzkoa. Azken denboren gainean proiektatzen den drama eta salbazioaren historia den aldetik, fedearen argitan baino ez da ulertzen."⁽¹²⁾

Lehenengo horma-zatien min ulertezinaren oinazea sufritzen ari den pertsona bat agertzen da. Eta ez dago kontsolamendurik minaren oinazearen aurrean. Lehenengo eta behin bidegabekeria baten ondorioz sufritzen ari den gizakia aurkezten da. Minaren absurdua da. Jarraian, ibilbide "historiko" bat dator horma osoan zehar, "hasiera eta amaiera" da, "bizitza eta heriotza", "apokalipsia" lau zaldizkoetatik (gosea, pestea, gerra eta heriotza). Azken horma-zati biak "azken denborari" egiten zaion kantua dira. Pertsonen maitasuna herritarrak dituen hiri batean. Azken horma-zatien, figurak biluzik agertzen dira, askatasunaren ikur bezala. Ume bat ere agertzen da, historia desberdina izan daitekeen etorkizunaren itxaropena bezala.

Zalantza barik, Egañak Arantzazuko Basilikako Andre Mariaren Ganberatxorako pintatutako muralak, zedarria izan ziren bere ibilbide artistikoan, non bere estilo espresionistaren indar teluriko guztia zabaldu zuen, sustrai erlijiosoak eta humanistikoak dituena. Bere zeregin piktorikoaren heldutasun osoa lortzen duen zikloa osatzen dute, askatasunean eta konbikzio osoz onartua. Hogeita hamabost urte zituela, Xabier Egañak lan boteretsua egin zuen, eta berdinen arteko harreman du bere mito eta maisuekin, eta buruan zihoazen artisten taldean sartu zen, Saenz de Oiza, Jorge Oteiza, Lucio Muñoz, Álvarez de Eulate, Néstor Basterretxea, euren aztarna ezabaezina utzi dutenak gure kultura garaikideko, artistikoko eta erlijiosoko leku enblematiko horretan, hau da, Arantzazuko Basilikan.

Bere ibilbideari jarraiki, 1979an, Egañak San Pelaio elizako absidearen pintura murala egin zuen eta altzari liturgikoen diseinua, Zarautzen. Oteizak berak eskatu zien udal arduradunei esku hartze artistiko garaikidea egin zedila, eta Egaña izan zitekeela absidean mural bat egingo zuena.

Egañaren pinturak inguratu egiten dute eta konposizioan sartu Tomas Murua eskultorearen zurezko irudi bat, martirren gorpu zatikatua irudikatuz, kutsu kubistaz. Pintatutako panel guztia bat martiriora eraman zuen fedearen aukeran ardazten da. Maila ikonografikoan, figura erraldoi bat altueratik jaisten da, Jaungoikoaren gaur egungo irudikapena balitz bezala eta bere eskuaz martirren eskua ukitzen ari da. Erdiko aldean, herria agertzen da, bere etxeak eta bere historia propioarekin. Oso zentratuta gurutziltzaketa bat agertzen da, neurri txikian, zera azaltzeko, gizateriaren historian Kristoren heriotza zerbait puntuala besterik ez dela. Goitik behera argi bat dago, zerua Jaungoikoarekin eta lurra bere egunerokotasunarekin lotzen dituen bidea litzateke. Beheko aldean, herria errepresentatzen duten zenbait pertsonaia dago eta emakume bat eserita, bere alboan ume bat duela. 2006an, murala berriz pintatu zuen partzialki Egañak berak, horman konposizioa bertikalean urratzen zuen arrakala nabarmen bat zegoen eta.

San Pelaion, altzari liturgikoak ere diseinatu zituen, aldarea, anboia, sagrarioa eta pazko-zuziaren oinarria, zurezkoa; argi eta garbi eskultura kutsua duen pieza multzoa. Bataiarriak harrizkoa izan behar zuela ulertuta, inguruko harri bat bilatzea erabaki zuten eta menditik eroritako haitz batekin egin zuten topo. Haitz horri bataio-urarentzako ontzia besterik ez zion behar izan.

Alemaniarekiko lotura

70eko hamarkadan, fraide frantziskotar batzuk Alemaniara joan ziren ikastera, zehatz -mehatz Münster hirira. Günther Mess doktoreak, egoitza hiri horretan zuen *Kirche und Leben* (Eliza eta bizitza) argitalpen katoliko baten zuzendariak, frantziskotar batzuk orientatu eta bere inguruan egin zien harrera. Atsegina zen eta ondo ezagutzen zuen Euskal Herria eta udetan bere familiarekin etortzen zen Gernikara eta Zumaiara. Arantzazura egin zuen bisita batean, Ganberatxoko pinturak ikusi zituen, Egañak amaitu berritan. Horrela, 1979an, Egañak pintura muralak egin zituen frantziskotarren kapera pribatuan Münster-en (gaur egun desagertuak, komentua erausi egin zen eta). 1980an, berriro joan zen Alemaniara beste pintura mural batzuk egitera Münster-eko Klaratarren komentuan, eta banakako erakusketa egin zuen Wolfenbüttler-en eta Osnabrück-en. 1981ean, banakako beste erakusketa bat Werne-ko Udalean.

1980ko eta 1981eko udetan, pintura muralen multzo handiena egin zuen Alemanian, Mühlen-eko San Bonaventura elizan. Mural handi bi dira, zazpi bider zortzi metro koadrokoak eta bi metro eta erdi bider altuerako sei metroko beste lau mural. Horma nagusietarako proposatu zioten gaia Gurutze-bidea da, baina bi horma ia karratuak zirenez, Egañak konposizio zirkularra egin zuen, eta Jesusen sufrimendua edozein pertsonaren bizitzako zerbait zikliko bezala planteatu zuen.

Mees doktoreak, Alemanian Egañaren 'mentore' zenak gai horri buruz dioenez: "...Mühlen hirian, non hilabete batzuetan bizi behar izan zuen, bere mural eztabaidatuak egiteko frantziskotarren elizan, herritar oso estimatu bihurtu zen, lagunkidetasunez onartua, batzuek bere pinturak ulergaitzat jo arren." ⁽¹³⁾

M^a Jesús Aramburu Gipuzkoako Kultura diputatuaren hitzetan, Alemaniako eta Euskadiko hainbat tokitan egin zen Egañaren baterako erakusketa zela-eta (2008-2009): "... Xabier Egaña paradigmaticoa da. Bere lanak, gaur egungoak, baina mendeetan zeharreko aztarnaz blaituak, euskal herritarrak eta alemaniarrek lotzeko gai dira, europarrak garen aldetik bizi izandako gertaeren gainetik doan eta goren duen bideari jarraiki." ⁽¹⁴⁾

Collage. Trapuak eta mihiztadurak (1980-1986)

Egaña beti dago zer gertatu den adi, batez ere gizakiaren bidegabekeriara eta sufrimendura iristen diren kasuan; hori bere izaera barnekoena da, horrek mugiarazten dizkio erraiak eta, askotan, motibatu egiten duena bere adierazpen artistikoan. Horri dagokionez, Mees doktoreak berak, *Profeta eta giza duintasunaren probokatzailea* tituluko idatzi batean zioen: "arte bere horretan" existitzen ez den bezala, bete testuingurutik kanpoko artea ere ez da existitzen. Beti dago testuinguru sozial batean murgilduta eta hortik jasotzen ditu bere bultzadak eta arte-lan bilakatzeko arrazoiak ere. Hau Xabier Egañaren kasurako ere balekoa da" (...) "Arantzazuko bere garaian gartsu agertu bazen giza-

duintasuna zapaltzearen aurka, orain giza baloreen aldeko borrokalari profetiko bilakatu da, giza-duintasunik gabe ez delako posible bizitza onargarria” (...) “Normala da artista garrantzitsuek euren lanetan bizirik irautea euren bilakaera artistikoan gertatutako gertaera esanguratsuak. Hau Xabier Egañaren kasurako ere balekoa da.”⁽¹⁵⁾

1980ko martxoaren 24an, Monseñor Romero⁽¹⁶⁾ erail zuten San Salvador-en, meza ematen ari zela Divina Providencia ospitaleko kaperan. Nazioarteko eragin handia izan zuen gertakizuna izan zen eta sako hunkitu zuen Xabier Egaña. Berria entzun zuenean, zerbait sortzeko beharrezana sentitu zuen berehala. Berak kontatu duenez: “Ikastetxeko tailerrean nengoen, Arantzazun, zeramika piezak egiten genuen lekuan. Eskura izan nuen lehenengoa hartu nuen, buztinarekin ibili eta gero eskuak sikatzeko erabiltzen nuen eskuzapi zati bat, eta urratzen hasi nintzen, eta zatiak hantxe bertan zegoen ohol zati txiki baten gainean kokatzen hasi nintzen. Jarraian, pintura pixka batez zikindu nuen eta handik zegoen domina txiki bat kokatuz amaitu nuen...ez galdetu zergatik. Hori izan zen oihal zatiz egindako nire lehenengo lan intuitiboa eta erraietatik atera zena, gerora beste batzuk egin nituen material bera erabiliz.”

Ohol gainean egindako lan sail baten hasiera izan zen, collage eta pintura arteko mistoak, ‘Romero saila’ izenez identifika daitekeena, 1980 eta 1982 artean eginak. Lan espresionistak, ezaugarri abstraktu-materiazko garbiak dituztenak, eta guztietan berrerabiltzen dira arropa liturgikoak, meza-jantziak eta abar, Arantzazuko Santutegi-komentuko sakristian erabili gabe zeudenak. Lan horiek bere esplorazio piktorikoko une interesgarrietako bat eta adierazpen indar handienetako bat dutenak dira, konposizio askatasun handia dute, tentsio boteretsuan oinarrituak, batzuetan bortitza, kolorearen erabileran, kontrastez eta ondo maneiatutako testurez beteak. Oihalen azal desberdinek ematen dioten materiala itsasten, josten, txirikordatzen, berriz pintatzen pintorea bere baitan bildu dela nabaritzen da.

1981 eta 1982. urteetan zehar gune publikoetarako lanak egin zituen, eskultura-lanak. Arrigorriagako kiroldegiaren kanpoko aldean erliebe batzuk egin zituen, hormigoia enkofratuz. Beste bi esku-hartze burdinar egin zituen: pieza biko eskultura multzoa, estilo abstraktu eraikitzailean, Sopelarako; eta *Hiriko Zuhaitza* eskultura Zarautzerako, trenbide okertuak, zulatuak eta soldatuak erabiliz egina.

1984 eta 1985. urteak jarduera biziko urtean izan ziren. 1984an bere banakako lehenengo erakusketa egin zuen Madrilan, Orfila galerian. Galeriaren iritzia jasotzeko agertutako aipamenean honela dio: “Pintore euskaldunarentzat garrantzitsuena adieraztea da, bere barneko egonezina ateratzea, gaurko gizakiekin elkarrizketa eratzea, edertasunaren kontzeptua berriz asmatzea eta bere lana pizgarria eta iradokitzailea izan dadila, eta horretarako, erraztasun beraz erabiltzen ditu marrazketa, pintura tradizionala eta materia.”⁽¹⁷⁾

Oldenburgen (Alemania) ere egin zuen banakako erakusketa eta Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak eta hiru Foru Aldundiek sustatutako *Ertibil* erakusketan ere hartu zuen parte. Arrigorriagako kiroldegian, igerilekuetako hormetan, mural-lana egin zuen, neurri handikoa, zeramika industrialean. 1985ean, berriz joan zen Alemaniara konposizio mural bat kolokatzeko, zeramikan eta zuran moldeatutako piezaz egina, *Kirche und Leben* astekariaren harrerarako, Münster-en; eta hiri bereko San Esteban elizarako Gurutze Bidea ere egin zuen zeramikazkoa eta zurezkoa.

1984eta 1987 urteetatik zera nabarmen daiteke, kuadroetan oihalekin egin zuen esperimendazio plastikoaren garapena. Lan mota hori erraietatik hasita eta adierazpenez hasi zen ‘Romero sailean’ eta urte horietan jarraitu zuen era lasaiagoan eta pinturarekin baretu zen. Kuadro asko egin zituen, formatu ertain eta txikikoak, abstraktuak, Espainiako berrogeita hamarreko informalismora garamatzatenak, Millares-en eta Tàpies-en lanen erreferentzia argiak dituzte. Lan horietan konposizio soiletan trebatu zen, horietako asko gurutzearen aitzakiaz, gizakien sufrimenduaren sinbolo gisa. Epe horretako lan adierazgarrienen artean *Materia josia* (1984) eta *Gurutzerako hil-oihala* (1984) aipa daitezke.

Neurri handiagoko beste lan batzuetan, pintura eta oihal korapilatuaren arteko hibridazio zaindua garatu zuen artistak, intuizioz eta ausardiak: tolesak eta bertolesak, sokak eta lakainak, josiak eta lotuak...mihise-euskarria urratuz, txertatuz, zikinduz eta pintatuz. Garai horretatik *Ikaroren tresna* triptikoa aipa daiteke (1985).

Lan horren harira, Juan Plazaolak, urteak geroago, 1990ean, idatzi zuen⁽¹⁸⁾ : “... Xabier Egaña liluratzen duten gaietako bat Ikaro da, pertsonaia mitologikoa, argizarizko hegoekin hegan eginez eta eguzkira gehiegi hurbildu ostean, lurrera erori zena. Artistak honen inkontzientean altuera lortezinak desiratu behar ez diren ideia obsesioz itsatsi balitz bezala....”

Urte horietan, estimulu zaharrak piztu ziren Egañarengan, Juan Arriolaren ondoan ikasitakoak, aurkitutako objektuen birkonposizio plastikoari buruzkoak. Hondakinetera botatako objektuek eraginda eta kontsumoari buruzko hausnarketa gisa, bere lanetan erabiltzen hasi zen, telebista karkasak, leihoak, lanabesak eta beste zenbait tresna, esaterako petako makinak, e.a. Objektu-lanak dira, eskulturak bezala tratatuak, izaera auto-eramaileaz, artelana kontsumo-gizartearen objektu totemiko bilakatu arte.

Eraldaketa. Familia eta hiria (1987-1990)

Laurogeiko hamarkadaren erdi aldera, 1986an, berrogeita hiru urte zituela, ordena frantziskotarra utzi zuen. Ordura arte, han garatu izan zituen bere bizipen erlijiosoak eta bere zeregin artistikoa, baina ibilbide pertsonal eta sentimental berriari ekin zion. Bizi-estilo berria, María José Zuritarekin ezkondu zen eta Donostian instalatu zen familia. Gaur egun ere hiri horretako Irakasle eskolan ematen ditu plastika eskolak.

Enara alaba jaio zen 1988an eta familia-bizitza egiteko garaia izan zen, esperientzia aberasgarrien unea arlo pertsonalean, eta artistak bere osotasunean bizi izan zuen. Pintoreak atzerantz egin zuen familia-bizitzaz gozatzeko. Bizi-aldaketa horri buruz eta bere pinturari nola eragin zion artistak berak honako hausnarketa egin zuen: “1987an, motiboak mugitu egin ziren eta aldatu lanen sakonean. Pertsona hurbilenak pintura bilakatu ziren; kuadroen motibo egin ziren. Eguneroko ibilaldiak pintatuak izateko behar bilakatzen dira: eguneroko paisaiak dira. Lan horiek berriz begiratzea, bizitzako une xumeenen gozamenara itzultzea da.”

Eszena etxetiarrak pintatu zituen, egunerokoarenak, familia-eszenak, emaztea, alaba, etxeko tresnak, e.a. egunero inguruan ditugun eta ia-ia ikusten ez ditugun gauza xumeei egindako laudorioa. Horietan aurkitu zuen pintoreak gairako pizgarria, bere zaletasun plastikoak ateratzen jarraitzeko. Bizi-une eta une artistiko haren adibide ona *Familia* (1989) bere triptikoan aurkituko dugu, kolore-sorta urdin, berde, turkesa eta bioletetan egina eta familia-une bat jasotzen duena, egilea bera adoretuta sentitzen da bertan eta begiraden zentroa da.

1989-90 epealdian, artista dagoeneko familia-bizitzaren eraldaketa pertsonal horretan finkatuta dagoenean, beste lan batzuk egingo ditu: “zeintzuetan eraikitza eta desegitera itzuliko den, aldizkari arrosetatik edo informazio orokorretik hartutako irudi errealtaren berregitea, erotikoa, egunerokoa. Jenioa dago, sarkasmoa, sentsualitatea, arinkeria eta gustu ona dago. Collage formako egiturak eta arketipoak berriro ere agertzen dira pintore eraikitzaile kolorista honetan, marrazkia, pintura eta eskulturaren artean.”⁽¹⁹⁾

1990ean, banakako bere lehenengo atzera begirako erakusketa egin zen, Donostiako San Telmo museoan. Erakusketa horretako katalogoan Juan Plazaolak bere lanari buruzko hausnarketa interesgarriak idatzi zituen⁽²⁰⁾: “... Egañaren etapa berrienaren ezaugarri nagusia zurezko, oihalezko, paperezko eta pinturazko collage horiek dira...bere borondatea oihukatzen digun *arte povera/arte pobre* bat, hau da, materia (trapua, egurra eta soka) izan dadila bere mezu enigmatikoa botatzen diguna. Sakonean, gizakiaren drama da material nahaste horretan zifratuta geratzen dena...Baina, ondo begiratu gero, materia mihizadura horiek, gutxitan dira materia hutsa, ia beti erakusten dute pertsonaren gustu estetikoa” ... “objektuak, objektuak baino gehiago, objektu zatiak dira...zetzua erabat galdu duen gizarteari egiten zaion protesta oihu bat...sinbolismoak argia dirudi: zurezko eta trapuzko collage horiek, formarik gabe eta sinadurarik gabe, berez dira, pertsonaren beraren ebokazioa.” Amaitzeko honako gau esan zuen: “Xabier Egañaren prestakuntza estetiko, filosofiko eta historiko bikainak nahiko prestakuntza eman diote, sinboloaren sakontasun misterioitsu eta deigarria eta formaren edertasun lasaigarria eta erakargarria zorientasunez elkartzen dituen bideetatik aurrera joan ahal izateko artista izan dadin, bere inspirazioaren askatasunaren kontra joan gabe.”

Diario Vasco egunkarian, Iñaki Moreno Ruiz de Eginok idatzi zuen: “Pertsonaren irudiaren bilaketa egoera desberdinetatik igaroko da eta bere aztarna hurbilenek, bere arropak, gizateriaren historia kolektiboan sakontzen dute. Kosmikoak, erlijiosoak, bizi-tragedia eta isiltasun eremu batera eramaten gaituzte” ... “Lan berrietan, figurazioari ekin dio, hartara, kuadroaren azalera itzuli da. Bere gaiak hurbilak dira orain eta berriz ere pertsonaren ingurukoak. Espresionismo ñabardura aldatu egin da hirurogeita hamarreko bere erretratuen aldean. Giro espresionista haietatik, orain, pintoreak pausa ondo pentsatuaz tratatzen ditu figura nahiz fondoko paisaia. Oraingoak figura gogozkoagoak dira, lehen Xabier Egañaren lanetan inoiz agertu ez zen xalotasun eta lirismoz beteak.”⁽²¹⁾

1990 eta 1991 urteetan, erakusketa bitan erakutsi zuen bere lana. 1990ean, Mediiioevo galerian, Hondarribian, *Buruak* titulua zuena, kuadro ertain eta txikien aukeraketa bat aurkeztu zuen. Erakusketaren liburuxkan, artistarengandik hurbila zen eta bere ibilbidea eta bilakaera ondo ezagutzen zuen Javier Garrido teologo frantziskotarrak idatzi zuen: "... Forma multzo-kolpetan antzematen da, kolpeka egin delako, kolore kolpetan. Eta, hala ere, kromatismoa trinkotzen denean, pintzelak bere lekua espatulari uzten dionean, inoiz ez du albo batera uzten dibujoak inposetzen duen disziplina. Agian, hortxe datza bere lanaren sekretua: denak ematen du bihurrikatua, eta konposizioa sakonerantz plegatzen da; planoak kaosean gainjartzen direla ematen du; eta marratze hutsak begirada bilakatzen ditu berriz ere."

Hurrengo urtean, 1991n, berriro ere erakutsi zigun lan aukeraketa bat *Atzerantz begira* erakusketan, Iruñako Udaleko erakusketa-aretoan. Editatu zen triptikoan, artistak berak bere pentsamenduak azaldu zizkigun: "Arte oro da historiari egiten zaion begirada, norberaren historiari eta historia kolektiboari. Gero, dena dekantatzen da eta gorputza egiten du pertsonarengan. Bizitzan zehar gauza asko igarotzen dira pertsonaren bihotzetik: hemen aurpegiak daude, forma sinpleak eta koloreak. Sinplea bilatzea da, hurbilena eta berehalakoa. Eta bertan pertsona." ⁽²²⁾

Argitaratutako kritiketatik, *Navarra hoy* egunkarian, Javier Murok jaso zuen ⁽²³⁾: "Inkomunikazioaren gaia begiraden bidez dago jasota. Gizakiak gizakiarekin topo egin dezan dagoen nahiari buruz hitz egiten duten kuadroak. Begirada sorta bat da, zeinetan buruak lokatuta dauden, batzuk gora begira kokatuak, beste batuz alderantziz. Baina, Ikaroren mitoa da erakusketa honetako alderdi iradokitzaileenetako eta sinbolikoenetako bat."

Laurogeita hamarreko hamarkadako lehenengo urteetan, Egañak berriz ere jarriko du gaiaren begirapuntua pertsonarengan, hobeto esanda, pertsonaren sufrimenduan, gaur egungo gatazkei buruz argitaratzen diren berriek eta irudiek bultzatuta. *Kroazia* (1991) bezalako lanak estoikoki sufritzen duen gizaki unibertsala errepresentatzen dute: pintoreak gizonezko figura bat kokatu du kuadroaren erdian, biluzik, plano moztuekin, ia-ia ziztatzaileak, bere burura apuntatzen; gorputza zauritua, ia kolore-paleta guztiaz eta bere gorputzari darion pintura berdeaz zikinduta. Garai horretako beste lan esanguratsu bat *Bosniarako Kristo bat* (1994) da, kode abstraktu materiakoan.

Iraganeko oihartzunak eta materiako esperimentazioa

2002an, pintura erakusketa bat egin zuen Madrilgo Euskal Etxean, *Iparaldeko irudiak/Imágenes del Norte* titulukoa, eta Iñaki Moreno Ruiz de Eginio eta Edorta Kortadiren testuak erantsi zizkion ⁽²⁴⁾: "Eguneroko errealismoak bere aurreko zenbait gai eztitu egin dituela dirudi. Horretan, egunerokoan, dago orain artistaren kosmobisioa. Kosmobisio hori aberastu egin da, gainera, gai multzo zabalago eta anitzagoaz, bere azken collage lanetan agertzen dena, indar eta adierazkortasun handikoak. Irakurketa anitz eta gainjarriak dituzten collage lanak, aberatsak tentsio ikono-plastikoetan, indarrez eta lirismoz beteak, bizitasun helduaz eta jakintsuaz."

YA egunkariko arte-kritikoaren erreferentzia bat ere agertzen da: "Xabier Egaña pintorearentzat garrantzitsuena bere barneko egonezina adieraztea, iraultzea da, gaur egungo pertsonetikoko elkarrizketa sortzea, edertasunaren kontzeptua berriz asmatzea eta bere lanak zirikatzaileak, erasotzaileak eta iradokitzaileak izan daitezela. Horretarako, berdin oinarritzen da, erraztasun beraz, dibujoan, pintura tradizionalan eta materialan. Egañak elementuak uztartzen ditu, formarekin, lerroarekin, kolorearekin eta erliebearekin jolasten du, bere lengoia propioa sortzeko. Eta jolasten duela esan dut, nire iritziz, Egañak ideiak eta bizitasuna sobera dituelako, eta horrela, ezertarako balio ez duten transzendentalismo faltsuen atzean izkutatu beharrean, pintura bizia egin zuen, bortitza eta irekia. Hauek dira pintore interesgarri horren trebetasun handienetako batzuk."

2003an, bankako beste erakusketa bat Ekain galerian, Donostian, Meninen baimenaz/*Con permiso de las Meninas* titulukoa. Erakusketa horri buruz, Edorta Kortadik idatzi zuen ⁽²⁵⁾: "Nolabaiteko desegituratze formala eta espaziala, ikonografikoa eta estetikoa da Meninen sail honetan guztian, egileak erraztasunez eta trebetasunez proposatu duena erakusketa aberats eta anitz honetan. Nolabaiteko ariketa mentala eta kontzeptuala egitea pentsatu du egileak, neska txiki eta babesgabe hori nahita eta era esanguratsuan kokatu duen bariante eta posizioa ugarietan, bakardadearen eta zapalkuntzaren ikur bilakatu arte, gorte astun eta zorrotz hartan. Nahiz eta Muñoz, Picasso eta Chagallen oihartzunak, oraindik ere, bere lan guztietan nabaritzen diren, gero eta pertsonalagoa eta bereagoa da, bere lan propioa egin arte, austeritate eta zorrotzasun kontzeptual handiz beteak, kolorean eta figuran soila izateaz gain."

2004an beste mural bat egin zuen, oraingoan San Asension (Errioxa), La Estrellako oratorioko kaperan, eta 2006an, bere bigarren erakusketa Donostiako Ekain galerian, *Vistas y Visiones* titulukoa. Erakusketa honi buruz, Joxean Agirrek egilearen testigantza jaso zuen ⁽²⁶⁾: "Barandaren azala utzi nahi izan dut eta sakondu hiriaren espazioaren eraiketan. Paisaietan aztarrika egin nahi izan dut, hiriaren gainazala apurtu."

2007 eta 2008 artean, bere ibilbideko beste lan esanguratsu bat egin zuen, Álvarez de Eulatek iradokita: beirate multzo bat (200m²), estilo espresionista-abstraktuan, Donostiako Espiritu Santo elizarako. Lan oso fina, argi-lerroak pasatzeko arkitektoak utzitako proportzio zailen mendean, kasu honetan Egañak duen maisutasun kromatikoak eman dio kolorea lanari.

Beirei dagokienez, berriz ere E. Kortadik jaso zuen: "Forma geometrikoak eta organikoak, gorri, laranja eta urdin indartsuz beteak, osatzen dute eremu arkitektoniko eta erlijioso berotzen duen friso boteretsua, eta Xabier Álvarez de Eulate bere mentorearen begirada ernearen pean eginak. Zelebrazio poloen altzariak ere diseinatu ditu: aldareko mahaia, anboia eta jesarleku presidentziala, baita bataio-ontzia ere, harrizkoa, eta multzoa egokia da eta integratua." ⁽²⁷⁾

Aintzatespenak Alemanian (2008)

2007an, Behe Saxonian dagoen Oldenburgoko eskualdeko agintariek, Egañaren lanak duen esanahi garaikidea aitortuta, Ondare Artistiko maila eman zioten Mühlen-en, San Bonaventura elizan, 1981ean egindako pintura muralen multzoari. Pintorearekin harremanetan jarri ziren, bere tailer-estudioa bisitatu zuten, bere lana Alemanian erakusteko asmoz.

2008an, Xabier Egañaren lanaren atzera begirako erakusketa garrantzitsua antolatu zen, Alemaniako kultura agintariek sustatua, euskal artistek lurralde horretan utzitako pintura muralen ondare garrantzitsuari aintzatespena erakusteko helburuz. Erakusketak *Bizitzaz / Arantzazutik Alemaniara / Xabier Egaña euskal pintorea / 1975-2008* izena izan zuen, eta 2008-2009 bitartean hainbat hiritan izan zen Alemanian eta Euskadin: Arantzazu, Donostia, Bilbo, Münster, Mühlen, Vechta eta Barnstorf.

Aurkezpenean, Lutz Stratmann doktoreak, orduan Zientzia eta Kultura Ministroa Behe Saxonian, pertsonaren eta pintorearen garrantzia aitortu zuen, esanez: "Europako kultura lurralde garrantzitsu bi sakonki lotuta daude Xabier Egañaren lanaren bitartez: bere jaioterria, Euskal Herria, eta bere adopzioko herria Behe Saxonia."

Garaia hartako Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburuak ere, Miren Azkaratek, honela idatzi zuen: "Duela hogeita bost urte inguru, artista honek Mühlen-eko frantziskotarren elizako muralak pintatu zituen; pintura horiek eskualde horretako ondare artistiko dira gaur egun, Oldenburgoko arduradunen ekimenez."

Bizitzaz erakusketa zela-eta, 2009an zehar, Egañak beste erakusketa bat egin zuen *Bakardadea* titulukoa, Veshta-ko espetxe barruan. Pintoreak gizarte arazoengatik inguruko gaiak buruzko lanak erakutsi zituen, esaterako ihesaldia eta kanporaketa, heriotza zigorra edo arrazakeria, balio kristauen fondoarekin eta, bereziki erakusketa honetarako, emakumearentzako bakardadea eta espetxea gaia lantzen duen zikloa egin zuen.

Ibilbide horretan, *Bizitzaz* erakusketa 2009an izan zen ikusgai Donostiako Elizbarrutiko Museoan. Unai Maraña kazetariak honela jaso zuen ⁽²⁸⁾: "...Erakusketak nolabaiteko izaera antologikoa du, eta egilearen ibilbideko hiru gai handiak ditu: gizaki existentziala, bizitzak mindua, gurutzea eta emakumea, emakume biluziak edertasunaren erakusgarri, sinboloa, feminitatea eta erakurpen sexuala eta erotikoa."

Hondarrak, Liburuak eta Bizitzarako Pinturak (2010-2017)

2010ean, San Migel eliza barruko hormak pintura mural bezala apaintzeko gonbidapena jaso zuen, Antezana-Andetxan, Forondako aireportuaren ondoan (Araba). Lan izugarri handia zen eta Egañak erronka balitz bezala egin zion aurre; hurrengo zazpi urteak iraun zuen bizi-prozesua.

2010 eta 2012 bitartean, zirriborro kopuru itzel handia egiten aritu zen buru-belarri. Zirriborro horietan bere imajinario osoa islatu zuen, lau hamarkadatan zehar landutako gaien bigarren irakurketa eginez.

Ikonografia kristauen hibrido bat, irudikapen garaikideekin nahastuta, erlijiosoa gaur egunera ekarrita. Zirriborroak ikustea, bere gizarte kezken entziklopedia bat bezalakoa da, Egañari hurbilak zaizkion pasarte erlijiosoekin uztartuta.

Aldi berean, udan izan ezik, bere tailerrean *Hondarrak* saila lantzen du. Sail horrek zink plantxa berrerabilien erabilera du ezaugarri eta horietan topatutako objektuak eta materialak mihiztatzen ditu, eta pinturak esku-hartze puntualak ditu. Lan horietako zenbaitetan, saitegietan bildutako kaskezurrak sartzten ditu eta gurutzeekin uztartzen ditu eta berreskuratutako gurutziltzaketekin.

Lan-ildo horri jarraiki, lan multzo bat agertu zen, zeinetan liburuak ere sartzten zituen, denboran zehar metatuak. Lan horiekin zenbait erakusketa egin zituen bere inguruan. Horrela, 2012an, *Liburuak eta* erakusketa aurkeztu zuen Zarautzeko Garoa liburu-dendan, eta 2014an, liburuen hautaketa baten erakusketa egin zuen *Liburua, bigarren irakurketa* tituluko, Arantzazuko Gandiaga Topaguneko aretoetan.

2012an, talde erakusketa batean hartu zuen parte, Gernikan, *Gernikari buruzko beste begirada batzuk* titulua izan zuen. Bertan lehendabiziko aldiz erakutsi zen Picassoren izen bereko lanari buruzko bere bertsiio zoragarria. *Gernika Gogoratuz* (2010) izena jarri zion egileak. Neurri handiko triptikoa, zeinetan Egañak hiru motibo hartzen dituen ardatz, bere bigarren irakurketa egiteko: zutik dagoen zezena, zaldi zauritua eta sufritzen ari den emakumea (bitan banandua). Lan eklektikoa eta poliedrikoa da bere trataera plastikoa, non zink, kobre, latoi txapa desberdinen masa mihiztatuak diren nagusi, zur landuekin apainduak (zezena eta zaldia), paper fotokopiatua erabiliz (emakume biak) eta pintura orbanak gorri odoltsuetan eta urdin elektrokoetan.

Lan horri testuingurua jartzeko, zera azaldu behar da, 2007 eta 2011 urteen artean, Egañak iraganeko pintura enblematikoen bigarren irakurketa bat egin zuela, material metalikoekin esperimentatuz, paper itsatsien gaineko marrazkiekin konbinatuta eta zur eta beste material batzuen mihiztatzeekin. Hori guztia zikinduta, urratuta, pintatuta, esgrafiatura, e.a., materialetan eta teknikatan collage handi hibridoak balira bezala. Iraganeko lan ospetsuen berrirakurketak bere lehentasunen ideia bat ematen digu: *Desayuno sobre la hierba*, Manet-ena (2009), *Las Tres Gracias*, Rubens-ena (2009), *El Nacimiento de Venus*, Botticelli-rena (2009), *La Venus de Urbino*, Tiziano-rena (2009), *La rendición de Breda*, Velázquezena, *Las Lanzas* izenez ezagunagoa (2011).

2013ko udan, Antezanako elizako pintura muralak egiten hasi zen, eta atrioa pintatu zuen bertako eszena herrikoiak erabiliz. 2014tik 2017ra, lau urte horietako udako hilabeteetan, Egañak burutu egin zituen pintura muralak Antezanako San Migel eliza barruko hormetan, eta *Bizitzarako pinturak* titulua eman zien egileak. Horietan, pintoreak giza abenturaren itxaropenak eta mehatxuak, pozak eta minak islatu ditu, bizitzaren drama amaitezinean, sinbolo erlijioso eta profanoen bidez, artistiko eta literarioen bidez, estilo espresionista figuratiboan. Zalantza barik, lan erraldoia, agian pintoreak egin duen handiena (400 m²), berak bakarrik, bere bizitzaren helduaroan, hirurogeita hamalau urte zituela amaitua, 2017ko urrian.

Bere lanaren emaitzari buruz, egileak berak esan du: “Sentiarazten duten pinturak direla uste dut. Ez dira gai erlijiosoak huts-hutsean. Dantek kalean zegoen zerbaiti buruz idatzi eta izaera erlijiosoa eman zion bezala, neu ere kaleko gaien oihartzuna naiz. Sentimendu bat mugitzen saiatzen naiz, bizitzaren irakurketa bat. Pintatzen amaitzen dudanean aktoreak ikusleak eurak dira, elizan sartzten den jendea.” Eta Antezanako herriari idatzi dio: “...zuen artean orban eta figura eran geratu nahi izan dut, dagoeneko zuen bizitzan dagoen koloretako horma bilakatu dira.”⁽²⁹⁾

Muralak egiten ari zen bitartean, 2016an, *Zirriborroen* erakusketa egin zen, Vitoria-Gasteizko Arte eta Lanbide Eskolan, prestaketa-dibujoen garapena erakusteko. Egilearen hitzetan, 2017an jasoak, pinturak amaitu ostean: “Azkenean, ia aurreikusitako dibujo guztiak mugitu egin dira, aldatu egin dira. Hormek oihu egiten dute, xuxurlatu, eta kasu egin behar zaie. Batzuetan gaiak bat-batean sortzen dira.”

Bizitzarako Pinturak mural-ziklo horren inaugurazioa 2017ko azaroaren 26an izan zen, erakundeen goi mailako ordezkarien presentzia izan zuen ekitaldi hunkigarria batean, Urkullu lehendakaria ere bertan izan baitzen.

“Nire bizitza erromesaldi bilakatu da, ametsen bilaketan” (Xabier Egaña, 2017)

OHARRAK:

- (1) X. Egaña, *Arantzazuko arte-lantegia* erakusketaren katalogoan, Ed. Frantziskotarrak, Arantzazu, 2016 (64. or.)
- (2) Edorta Kortadi, Xabier Egaña erakusketaren katalogoan. Museo de San Telmo. Donostia. 1990 (9. or.)
- (3) Lucio Muñozek 1962ko maiatza eta urria bitartean gauzatu zuen Arantzazuko absidea, Julio López Hernández eta Joaquín Ramos artisten laguntzaz, zeintzuk Arantzazun bizi izan ziren absidea egin zen bitartean.
- (4) Gasteizko komentu frantziskotarra Asisko San Frantziskok berak sortu zuen 1214an, Done Jakue bidetik itzultzen ari zela. Zazpi mendetan San Frantzisko eta Posta kaleen artean egon zen, gaur egun Ogasuna eta Vital Kutxaren eraikinak dauden orubean. Eraikin monumentalak izan zen eta erabilera katolikoa eta okupazio militarra uztartu zituen garai desberdinetan. 1930. urtean erausi zuten.
- (5) Marc Chagall. Parisko Operaren sabaia. Mihise gaineko olioak, 220 metro koadro gutxi gorabehera. Chagall-ek urtebete egin zuen lan proiektu horretan. 77 urte zituen. Lan honen lehenengo hurbilketak plater baten neurriko zirriborroak izan ziren, pastelean eginak. Koadroaren euskarriak, lurraren gainean zabaldua, plastikozko bilbadura batera eraman ziren eta Lenepveu-ren freskoaren zentimetro batzuk beherago kokatu zen. Opera baten eskutik inauguratu zen 1964ko irailaren 23an.
- (6) Murala berriz pintatua izan zen, motiboak aldatu barik, egileak berak 1983an. Beheko eskumako angeluan hauxe idatzi zuen 1968-1983 HIL ZEN ATZO, Joan Miró-ren gogorapen-omenez, bezperan hil baitzen (1983ko abenduaren 25ean).
- (7) Juan San Martín. El Correo egunkariako berri laburra (1972.06.27).
- (8) José Antonio Eslava (1936), pintore nafarra eta grabatzaile ospetsua nazio mailan. Bere alderdi pedagogikoa ere aipagarria da.
- (9) Lourdes Ubetagoyenak El Diario Vasco egunkariak (1977.11.17),
- (10) Miguel Alonso del Val, *Arantzazuko Santutegia / El Santuario de Arantzazu* liburua, FMR argitaletxea, 2007 (126. or.)
- (11) E. Kortadi, *Xabier Egaña* erakusketaren katalogoan, San Telmon, 1990 (11. or.)
- (12) M. Alonso del Val, *Arantzazuko Santutegia / El Santuario de Arantzazu* liburua, FMR argitaletxea, 2007 (126. or.)
- (13) Günter Mess, *Bizitzaz, Arantzazutik Alemaniara / Xabier Egaña, euskal pintorea 1975-2008* katalogoa, Oldenburg Estatuak argitaratua, Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz, 2008 (20. or.)
- (14) M^a Jesús Aramburu, *Bizitzaz, Arantzazutik Alemaniara / Xabier Egaña, 1975-2008* katalogoa, (9. or.)
- (15) Günter Mess, *Bizitzaz, Arantzazutik Alemaniara / Xabier Egaña, 1975-2008* katalogoa, (20-21. or.)
- (16) Ospetsua giza eskubideen aldeko bere predikueengatik. San Romero izenez kanonizatua (2018.10.14)
- (17) YA egunkarian argitaratutako berri laburra. Madril (15/07/1983),
- (18) Juan Plazaola, *Xabier Egaña* erakusketaren katalogoa, Donostiako San Telmo museoa, 1990 (5. or.)
- (19) E. Kortadi, *Xabier Egaña* erakusketaren katalogoa, Donostiako San Telmo museoa (13. or.)
- (20) Juan Plazaola, *Xabier Egaña* erakusketaren katalogoa, Donostiako San Telmo museoa, 1990 (5-7. or.)
- (21) Iñaki Moreno Ruiz de Egiño, berri laburra *El Diario Vasco* egunkarian.
- (22) X. Egaña, *Atzerantz begira* erakusketaren liburuxkan jasoa, Iruñako Udaleko aretoan (1991ko urria)
- (23) Javier Muro, berri laburra *Navarra hoy* egunkarian (1991.10.08)
- (24) E. Kortadi, Xabier Egañaren *Iparraldeko irudiak* erakusketari buruz, Madrilgo Euskal Etxean, 2002
- (25) E. Kortadi, *Deia* egunkarian argitaratuta berri laburra (2003.03.28)
- (26) Joxean Agirre, *Gara* egunkarian argitaratuta berri laburra (2006.01.29)
- (27) E. Kortadi, *Bizitzaz, Arantzazutik Alemaniara / Xabier Egaña, 2008-2009* katalogoa (40. or.)
- (28) Unai Maraña, *El Diario Vasco* egunkarian argitaratuta berri laburra (2009.03.28)
- (29) Félix Ibargutxi, *El Diario Vasco* egunkarian argitaratua (17.11.26)